

LAN HITZARMENEN NEGOZIAZIO MAHAIA:MOTELEGI GOAZ

Asteazkenean, urtarrilak 13, egin zen Bilbon Hitzarmeneko mahai negoziatzailea. Lan saioa izan zenez ez dago inolako erabakirik. Lehengo eta behin eta adostutako lan plangintzari jarraiki, **hitzarmeneko lehen tituluaren** artikulua aztertu genituen. Hona hemen agertutakoaren laburpena:

Eremu funtzionala: steilasek araututako irakaskuntza ematen duten enpresa pribatuen eragin eremua proposatu zuen, guztiak ez direlako gizarte ekimeneko ikastetxeak. Patronalek lehen zikloa duten Haur Eskolak sartzearen alde agertu ziren, lehia direlakoan (Madrileko hitzarmena aplikatzen dutenez merkeagoak dira). Oinarrizko Lanbide Heziketa sartzea ere aipatu zen. Kontsenso zabala honetan.

Pertsonal eremuan: Ikastetxeetan, azpikontratazioaren bidez lanean dauden langileen lan-baldintzak hitzarmenean sartzea ere proposatu genuen. Ekonomikoki ikastetxeek ezin diotela honi heldu adierazi zuen Kristau Eskolak.

Iraupena: Patronalek 4 urtekoa proposatzen duten bitartean, sindikatu gehienok bi urteko iraupena hobetsi genuen. Desadostasun nagusiena, ultraktibitatean datza, berriro ere ikastetxeen bideragarritasunaren kontzeptua mahai gainean jarri zelako.

Hitzarmena Interpretatzeko Batzorde mistoa: steilasek orain arteko ibilbidea aldatu behar zela nabarmendu zuen hainbat proposamen eginez: arautegia hitzarmenean garatu, Batzordearen aktak zabaldu eta bileretan erakunde ez sinatzaileen parte-hartzea bermatu, bozkatzeko eskubiderik gabe ez bada ere. ELAk ez zituen begi onez ikusi neurri hauek. Azkenik, Batzorde Paritarioa hitzarmenean txertatzea proposatu zuen Kristau Eskolak.

Ondoren, bileraren bigarren zatian **Hezkuntza-Laguntzako Espezialisten egoera** aztertzeari ekin genion. Sindikatuok antzeko diagnostikoa egin genuen, haur hezkuntzako lehen zikloarekin batera, hitzarmenean dugun kolektiborik prekarioena delako: lan baldintza kaxkarrak, ikusezin bihurtua, emakumez osatua, ez irakasleen izaera ikasleekin eta gelan egon arren... Hona hemen bere egoeraren kontu batzuk:

- bere funtzioak ez daude zehaztuta eta horren ondorioz "chicas para todo" dira.
- lanaldi eta soldata partziala baina dedikazio osoa: ordaindu gabeko orduak
- ez zaie ordu osagarririk aitortzen koordinatzeko, planifikatzeko...
- urtebeteko kontratua badute ere, ikastetxez aldatu behar dute maiz.
- kasu askotan, beraiek jakin gabe, legez kontratu finkoak dituzte ikastetxeak horrela aitortzen ez badie ere.
- oso berandu dakite ea jarraituko duten ala ez ikastetxeetan
- hainbatetan ikastetxeek ez dute poltsatik kontratatzen
- ikastetxean bat soberan dagoenean, ez dago zehaztuta nor geratzen den eta nor ez erabakitzeko irizpiderik
- kalte-ordainak eta antzinatasuna ez da beti bermatzen
- erreforma laboralaren ondorioz uztaileko orduak ikasturtean zehar sartzen dituzte
- horren ondorioz, gutxiago kobratzen dute (28 ordu lan egin behar 25 kobratzeko)
- ez dituzte IRALerako liberatzen. Ikastetxeetan ez dago formazio berezirik haientzat...

Garbi dago arazo asko pilatu direla kolektibo honetan eta tartean administrazioaren erantzukizuna ere dagoela. Diagnostikoa eginda, orain erakunde bakoitzari dagokio bota diren proposamen anitzak aztertzea. Hurrengo bilera batean, berriro ere hurbilduko gaitzaizkio gaiari.

Azkenik, hurrengo bilerentzako egutegia adostu genuen eta hiru bilera egingo ditugu, bakoitzak gai zehatza duela: otsailak 24, martxoak 14 eta apirilak 15. Ikusten duzuen bezala, aurreikusten genuen bezala.